

# «Gonbidapena sorpresa izan zen guretzat, eta ilusio haundiz onartu genuen etortzea»

Kronika - Erredakzioa 2022-01-13 00:00



«Gure sagardo berria» esanez ireki zuen txotx denboraldia AMAK taldeak.

Atzo ospatu zen, Astigarragan, XXIX. Sagardo Berriaren Eguna. Ekitaldi berezia izan zen Sagardoetxean eta Gurutzeta sagardotegian AMAK talde gonbidatuarekin, eta horrekin, hasiera eman zitzaion txotx denboraldiari.

Egun berezia eta momentu goxoz betetakoa izan zen atzokoa. Hain justu, atzo ospatu zen XXIX. Sagardo Berriaren Eguna, eta, horrekin, hasiera eman zitzaion aurtengo txotx denboraldiari. Aurtengo gonbidatuak, gainera, AMAK taldeko kideak izan ziren: Alaitz Telletxea, Maixa Lizarribar, Amaia Oreja eta Kris Solano. Laukoteak ireki zuen urteko lehenengo kupela, Gurutzeta sagardotegiko zazpigarrena, «gure sagardo berria» esanez.



Egitaraua kultur etxe zaharrean hasi zen prentsaurreko batekin. Bertan izan ziren Aintzane Barandiaran alkate ordea, AMAK taldeko kideak, sagardogileak, eta sagardoaren munduarekin lotura duten erakundeen ordezkariak. Aurkezle lanetan, berriz, Ibon Fernandez aritu zen; esatariak gidatu zuen aurkezpena eta baita Gurutzetako ekitaldia ere.



Sagarrondoa landatu zuten Sagardoetxeko sagastian, AMAK taldekoek.

Barandiaranek hartu zuen lehenengo hitza. Azaldu zuenez, Udala «oso pozik» dago aurtengo denboraldiari hasiera eman ahal izan zaiolako. «Edizio berezia da egungo osasun egoeratik, baina ilusio eta itxaropen haundia dugu». Horrekin batera, eskerrak eman zizkien bertaratutako guztiei eta, batez ere, AMAK taldeko kideei. Adierazi zuen «erreferente» direla guztiontzat: «lauok eman diozue asko euskal musikari eta, gainera, zuen lanarekin erakutsi duzue amatasuna eta oholza bateragarriak direla, eta emakumeak baduela bere lekua espazio publikoan».



Sagar dantza dantzatu zuten Gurutzeta sagardotegiko atarian.

Aurkezpena bukatuta, laukote protagonistak sagarrondoa landatu zuen Sagardoetxeko sagastian eta, ondoren, Gurutzetan jarraitu zuen ekitaldiak. Txalapartarien deiarekin batera, sagar dantza dantzatu zuten sagardotegiko atarian eta, jarraian, «gure sagardo berria» esaldia ahoz gora esanez, sagardo berria dastatu zuten AMAK taldekoek eta hasiera eman zitzaien aurtengo txotx denboraldiari.

[Kultura Astigarraga](#)

### Erlazionatuak



#### [AMAK taldeak ireki zuen 2022ko txotx denboraldia, atzo](#)

Kronika - Erredakzioa   urt 13   [Astigarraga](#)


«Gure sagardo berria» esanez, aurtengo lehen kupela ireki zuen atzo AMAK taldeak, Astigarragako Gurutzeta sagardotegian.



Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikalari gehiago behar dira, eta zer esanik ez, proiektu komunikatibo sendo eta profesional bat garatu nahi badugu.

Egin zaitez Kronikalari!

[Erantzun](#) ▼



### Ikusienak



['Elkartasun](#)

[Auzozaintza](#)

[Urtarriletik](#)

[Giro bikaina](#)

[Mari Jose](#)

[Sagardoetxear](#)

[borobila' festa izango da urtarrilaren 28an eta 29an Txantxillan](#)

Kronika - Erredakzioa  
urt 19, 00:00 [Hernani](#)

[sare publiko-komunitarioa programa aitzindaria martxan, Hernanin](#)

Kronika - Erredakzioa  
urt 18, 00:00 [Hernani](#)

[ekainera bitartean, kulturaz gozatzeko eta elkar zaintzeko parada](#)

Kronika - Erredakzioa  
urt 18, 00:00 [Hernani](#)

[Atsegindegiko erromerian](#)

Kronika - Erredakzioa  
urt 19, 00:00 [Hernani](#)

[Izagirre da eratu berri den Beterri-Buruntzako Mankomunitat eko lehendakaria](#)

Kronika - Erredakzioa  
urt 19, 00:00 [Urumea](#)

[en etorkizuna erabakitzeko galdeketa egingo da](#)

Kronika - Erredakzioa  
urt 19, 00:00 [Astigarraga](#)

## Kronika.eus

[Dobera Euskara Elkarte](#)

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · [kronika@kronika.eus](mailto:kronika@kronika.eus)



Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARREMANETARAKO](#)

[RSS](#)



Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#)

[AIKOR](#)

[AIURRI](#)

[ALEA](#)

[AMEZTI](#)

[ANBOTO](#)

[ANTXETA](#)

[ATARIA](#)

[BALEIKE](#)

[BARREN](#)

[BEGITU](#)

[DEUSTUALDEA PREST](#)

[ERLO TELEBISTA](#)

[ERRAN](#)

[EUSKALERRIA IRRATIA](#)

[GEURIA](#)

[GOIENA](#)

[GOIERRI TELEBISTA](#)

[GUAIXE](#)

[HIRUKA](#)

[KARKARA](#)

[KRONIKA](#)

[MAILOPE](#)

[MAXIXATZEN](#)

[NOAUA](#)

[OIZMENDI TELEBISTA](#)

[PLAENTXIA](#)

[TXINTXARRI](#)

[URIOLA](#)

[UZTARRIA](#)

[28 KANALA](#)

[Gurean](#)

[Plazanbazan](#)

[Itap](#)

[Tokikom publizitatea](#)